

KULTUR-BARRUAN

William Rollo-ren «The Basque dialect of Marquina»

Euskal lanetan buru ta bihotz sartutako atzerritarrik ugari izan da. Nondikoa den eta lehen sustraiak non dituen ezagutzen ez den hizkuntza zahar honek liluraturik, hainbat ikertzaile hurbildu da honantz. Jakintza-oihaneko menturan, oztopoak oztopo, aurrera jo duten langile errime eta ausartak. Hemengoek, berto-bertotik ikusten ez zutena, Europako zientziaren ikuspegitik egoki arakatu dute eta hemengoetxeko altxora erakutsi zenbait kasutan.

Guillermo Humboldt, Luis Luciano Bonaparte, Julien Vinson, Van Eys, Wentworth Webster, Edward Spencer Dodgson, Víctor Stempf, Jean Saroïhandy, Georges Hérelle, Hugo Schuchardt, C. C. Uhlenbeck, Julio Cejador eta Gerard Bähr... Hauek, L. VILLASANTE-ren «Historia de la Literatura Vasca»n datozenak dira. Zerrenda, asko luza daiteke den-denak biltzera joz gero. R. Lafont bat ez da ahaztekoa, ezta M. Pidal eta gaur egun oraindik bizi diren euskalari asko ere. Beti izango gara atzerritik hurbildu zaizkigun ikertzaile fin horiekin zorretan. Gaur, honelako hizkuntzalari bat ekarri nahi nuke KARMEL-en orrietara. Ez da goian aipaturiko beste horiek bezain ospetsua. Askorentzat, agian, zeharo ezezaguna izan daiteke. Izan ere, euskararekiko haren lotura Markinaldeko euskararen ikerketara mugatzen da, guk dakigula.

1925.eko martxoaren 16an W. ROLLO-ren «The Basque Dialect of Marquina» argitaratu zen.

Urte horretan bertan, RIEV aldizkarian, kritika zorrotz eta luze samarra egiten dio R. M. AZKUEK. Gain-begiratu batez, handi-handika ikusirik, gogoko izan omen zaio kritikariari, baina zenbait akats aurkitu dizkio. Akats txikiak eta egileak berak ere nolabait aurrikusten zituenak, ez baitzen honen asmoa inork hobetu ezinako lan sakon akats gabekorik egitea. Akatsok, gainera, ez dizkio Azkuek egileari egozten kasurik gehienetan, honen ingurukoei eta beren mintzaeraren lekukotasuna oker eman diotenei baizik.

RIEV aldizkariaren zuzendariak Azkue Jaunari kritikatzat bat eskatu zionean, zalantzan zebilela diosku honek. Kritika egiteari pozik eman ziola baietza, baina ez zekiela ziur zertara jo: metodoan erabili den zientzi-bidea aztertuko ala aurki daitezken akatsen iruzkin bat egingo ote dut? Azkenengo hau hautatu du egokiago, baliagarriago eta egilearentzat berarentzat ere atsegingarriago gerta daitekelakoan. Bere eritziak eman baino lehen, Markinaldeko bizkaiera ondo ere ondo ezagutu arren. Maguregi markinar apaizarengana jotzen du zenbait zertzeladetan.

Hiru zatitan sailkatzen du kritika lana:

- I. Markinakoak ez diren hitzak.
- II. Fonetika eritziak.
- III. Atzizkien azalpena.

Azkenez texto baten aipamena dakar.

Hurrengo urteko, 1926.eko, RIEV aldizkarian W. ROLLO-ren erantzuna dator. Egilea, alde batetik esker onez ageri da, Azkue jaunaren oharrak aberasgarri zaizkiolako, baina beste aldetik baita piska bat mingosturik ere, okerreko eritzietara eramán baitezake, haren ustez, irakurlea. Honela dio sarreran: «Me doy prisa en escribir estas líneas para corregir la impresión errónea que seguramente han producido sus palabras». Beste aldetik ez zaio atsegin Azkue jaunaren kritikari darion dena-jakin edo handi-usteko aidea. Mindu samarra azaltzen da

W. ROLLO, informatzailearen eritziak nabarmentzen direla obran eta honen esanari men eginez, zenbait makur izan dituela diotsanean. Honela ihardesten dio hizkuntzalari eskoziarrak:

«Antes de contestar a sus observaciones críticas declaro expresamente que no hay ninguna palabra ni construcción que no haya oído yo a lo menos dos o tres veces en boca de los aldeanos, en Marquina y en la comarca; es decir, que no he aceptado ni una palabra de mi "maestro" sin haberla oído de los aldeanos. Pues cuando dice el Señor Azkue: "Y en la pág. 17 asegura se Dr. Rollo (mejor dicho, su maestro), etc." dice una cosa equivocada e irremisible de su parte. ¿Piensa acaso que yo hice el viaje de Holanda a Marquina para estudiar el lenguaje de la manera pueril y poco científica que sus palabras indican?».

Labur bada ere, batak eta besteak RIEV aldizkarian diotenaren berri eman nahi nuke ondorengo lerroetan eta neure ikuspuntua erantsi.

I. Markinakoak ez diren hitzak

R. M. Azkuek dioena

1. «Jopu» = sirviente. «Refranes y sentencias»en datorren aintzinako hitz zaharra. Ez dakigu zein herritan erabili izango zen. Markinan «otsein» esaten da eta askoren ahotan «kri-xau».
2. Hilabeteen izen-zerrendan sei datoz Markinan, gaur egun behintzat, ezagutzen ez direnak: epail, orril, dagonil, asil eta lotasil.
3. Asteko egunen artean, *astearrte*, *larumbata* eta *igande* datoz. Hitz hauek ez dira Markinakoak, ezta bizkaierazkoak ere. Gainera «larumbata» 'el sábado' izango litzateke, ez 'sábado'. Honi dagokiona, bizkaieraz, «sapatu» edo «zapatu» da, ez «sapato».
4. 22. orrialdean datorren «baskide» (*bazkide*, zuzen idatzirik), hitz berria da; neologismoa da.

5. «Kirtengeri» eta «langide» hitzak ez dira inon ere herrikoiak. Lehenengoaren ordez, herriak «kirtenkeri» darabil. «Lankide» hitza, Oinehart-egandik jaso nuen —dio Azkuek— eta hiztegian ezarri. Gaur egun euskara lantzen duen edonor baliatzen da hitz polit honetaz, baina herriak ez du erabiltzen. Beren-beregi galdetu zion Azkuek Maguregi-ri: «Langide» ala «lankide»? eta erantzuna: Ez bata eta ez bestea.
6. Akats berdina nabari da «estalbe» eta «ibilbide» hitzetan, «estalpe» eta «ibilpide»ren ordez gaizki osotuak.
7. Texto sailean «asabien antzera» dator, «asaban antzera» jarri beharrean.

Honela ematen dio Azkue jaunak atal honi bukaera:

«Creo que también en esto sufrió el maestro del Dr. ROLLO influencia de vascólogos modernos que sin conocer suficientemente la lengua se lanzaron a escribir en ella. Por lo demás aprovecho esta ocasión para felicitar cordialmente al Rdo Cura de Barínaga por haber sacado un discípulo de la talla del autor de "The Basque Dialect of Marquina".»

W. Rollo-ren ihardespena

1. «Jopu» hitz hau, behin baino gehiagotan entzun duela baieztatzen du. «Otsein» eta «krixau», ordea, inoiz entzun duenik ez dela gogoratzen. Gainera bere asmoa ez zela Markinan erabil daitezken hitz guztiak biltzea.
2. «The Basque Dialect» liburuan «epail», «jorrail», «orril» etab.; «marti», «april» eta abarren ondoan datozela, Azkuek puntu hau ixildu arren, forma bitsuak erabiltzen baitira Markinan. Egia da —dio— haiek maiztasuna galduz eta hauek irabaziz doazela, baina lehenengoak ere ulertzen dira Markinan eta inguruan; areago: erabili ere egiten dira.
3. «Astearte», «larumbata» eta «igande» hitzez berak behin eta berriro entzun dituela, besterik ezin duela esan. «Larumbata» 'el sábado' bere hutsa izan dela dio; «sapato», berriz, moldiztegikoa.
4. «Baskide» hitz berria denentz niri ez zait axola, dio ROLLO jaunak. Hitz hau entzun dudaneko lekukotasuna eman de-

zaketa eta nahikoa da. Zera gaineratzen du hitzez-hitz: «The Basque Dialect no quiere más que reproducir, aunque imperfectamente, el dialecto de los aldeanos de Marquina, no importa el origen de los vocablos ni tampoco que sean viejos o nuevos, pero solamente si los aldeanos se sirven de ellos».

5. «Kirtengeri» eta «langide», Markinako baserritar askoren ahotan horrelaxe entzun dituela dio. Zera gaineratzen du, gainera; hiztun berberak ere beti ez duela hitz bera berdin ahoskatzen. Hori, hiztunaren prisaren, esaldiaren barruan hitzak duen egongunearen arauera izan ohi da. Era bietara ahoskaturik entzun dituela baieztatzen du.
6. «Estalbe» eta «ibilbide» hitzez gauza bera esan dezaket: Entzun nituen bezala idatziak daude.
7. Hemen Azkue jaunak arrazoia du, dio eskoziar hizkuntzariak: «asabien» moldiztegiko hutsa da.

II. Fonetika kritziak

R. M. Azkuek dioena

1. «i» eta «u» bokaleen eraginez «a» artikuloa «e» bihurtzen dela dio, baina gero baita «r»k fenomeno bera eragiten duela ere; eta hori ez da egia. Aditza azaltzerakoan, «gare», «zare» ez antzekorik ez dakar, zorionez, baina 7. orrialdeko azken lerroan «esgare» dator; Markinan, ordea, «ezkaa» entzuten da. Texto batetan, gainera, zera irakur daiteke: «(...) Oxillaiñaldeko ta Axmendi aldeko lamiñe guztiek lamiñe aren ayenetare eta uluetare». «Ayenetara» eta «uluetara» forma herrikoiak dira edonon —dio Azkuek—; Markinan, hala ere, «ayenetaa» eta «uluetaa» entzuten da.
«r» kontsonantea, bokale artean, aienatu egiten dela edo joera hori nagusitzen dela esan balu, ondo esana legoke.
2. «d», aurreko «i» bokalearen eraginez, sabaikari bihurtzen dela uste du; [d] bihurtzen dela, alegia. Hau ere ez da egia. Hori gerta dadin, «i» eta «d»ren tartean «l» edo «n» kontsonanteak beharko du egon: «ekarri dot» (gaizki)
«ezin dot» (ondo).
«Markiñarrak ures ondo ornidute dagos», dio Rollo jaunak.

3. Bokale arteko «k», zenbait kasutan erori egiten dela adieratzen du zehatz-mehatz. Adibidez: «gisonaken» > *gisonen*. Ondoren, «g» fonemaren aurrean, kasu batzutan, aienatu egiten dela dio. Adibidetzat zera jartzen du: gisonak + gaitik > *gisonagaitik*. Nik, ordea, beste hau esango nuke —dio Azkue jaunak: «k» «g»ren aurrean suntsitu egiten dela, bai; baita «bodega» saileko edozein kontsonanteren aurrean ere. Eta suntsitzean, kontsonante gorra sortzen da orde; hau da: «petaka» sailekoa: «Nik be bai» > *nipe bai*.
4. «t» bokale artean ozendu egiten dela dio. Adibidez: dot + as > *dodas*. Honek eta nire aurretik euskal gramatikaz ihar-dun duten guztiek —dio Azkuek— aditz iragankorraren lehen pertsonaren ezaugarria «t» dela uste dute eta gero, bokale artean, ozendu egiten dela. Ez, alderantziz da: singularreko pertsona horren ezaugarria «d» da, eta azken egongunean gortu egin ohi da: «dakidanean», baina «dakit».
5. «b» gortu egin ohi da dio W. Rollok, aurretik «s» duenean (negazio «ez» aurretik duenean, esan nahi du): «es-bada» *espada*; «batesbe» salbuespentzat jotzen du. Hau ere ez da guztiz egia Azkueren eritziz, negazioak ondoren adizki bat duenean bakarrik gertatzen baita hori.

W. Rollo-ren ihardespena

1. «r»ren ondoren, «a» behar luken kasuan «e» badator, «r»ren eraginez dela sinestu behar. «ayenetae eta uluetare» ipuin hori kontatu zidan baserritarrak ahoskatu zituenez idatzi ditut. Bai, badakit nik —dio W. Rollok— bokale arteko «r»a suntsitzeko joera bizia dela Markinan.
2. Azkuek hemen ematen duen azalpena jakingarria da, baina honelako morfologia batetan lekuz kanpo legoke.
3. 16. orrialdean honetaz idatzi duena begiratzeko diotsó. «lurrek gaitik» batzutan «lurrekaitik» ahoskatzen dela esaten du; baina beste batzutan «lurregaitik».
4. Ikus 2. puntuan.
5. Arazo hau argi azaldu diolako Azkueri eskerrak eman beharrean dela dio.

III. Atzizkien azalpena

R. M. Azkuek dioena

1. «le» eta «tzaille» atzizkien bereizketa ez dago argi. «le», «tü» edo «du» bukatzen ez diren partizipioetatik datorrela dio; eta ez da egia osoa. «i» eta «n» bukaera duten partizipioetatik datorrela esan beharko zuen; «o»z bukatzen diren partizipioek, Markinaldean, «tzaille» atzizkia hartzen baitute, baita «e»z bukatutakoak ere: «erre» erretzaille «yo» yotzaille.

2. «-ari» eta «-lari» atzizkiak ez direla berdin-berdinak dio; ez direla zeharo esanahi berekoak edo sinonimoak. Hori frogatzeko, bere Morfologia aipatzen du.

18. orrialdean «ikaslari» eta «ardolari». Ez bata ez bestea ez dira herrikoiak; lehenengoak 'carbonero' ala 'estudiante' esan nahi duen jakiterik ez dago, ez baitu itzulpenik ematen.

3. «-illa» txikitasun-atzizkitzat dakar. Atzizki hori, gaur egun, «-tilla» da. Agian, lehenago, «t» hori epentetikoa izango zen.

4. 'hablar del hombre, de los hombres' adierazteko «gisontzas» «gisonetzas» dator 13. orrialdean. Gure deklinabidean «-z» bukaeradun bat dago, baina honek izenorde pertsonaletan eta erakusleetan «-za-» artizkia eskatzen du. Beste euskalki batzutan artizki hori, «-ta-» edo «-tza-» ere izan daiteke. Markinan eta Bizkaiko beste herri askotan «nizaz berba egin», «zuzaz», «guzaz», «onezaz ostean» etab. erabili ohi ziren. Gaur egun «onezaz...orrezaz...azaz ganera», «askozaz andiago» eta honelakoetan izan ezik ez da erabiltzen.

Azkue jaunak dioenez, artizki hau ez da izen arruntekin (sustantiboekin) erabiltzekoa, izenorde pertsonal eta erakusleekin baizik.

Aipa ditzadan bere hitzak: «(...) el Maestro del maestro del Dr. Rollo se adueñó de *nizaz, guzaz...* y trajo su «tzaz» a nombres como *gizon, mendi, lur, orma* que hasta ahora no lo habían exigido ni admitido; y de su pluma brotaron «gizonatzaz», «lurratzaz»... que han hallado cabida no en Marquina ni en ningún otro pueblo, pero sí en la mente de muchos lectores de producciones vascas contemporáneas».

5. Deklinabideko paradigmarik gehienetan soziatiboa eta instrumentala bereizten ditu eta azken honen bukaeratzat «-kin» ematen du.

Ez. Markinan «-kin» askorentzako, plurala denean bakarrik erabiltzen da. Singularreko soziatiboaren bukaera «-gaz» da.

6. Beste akats txiki batzu ere badaudela dio Azkuek, baina gehiago ez luzatzearren ohar hau egiten du: ablativo kasuan —berak «directivo definido» deitzen dio— *mendixeta, besueta, lurra, lurreta, etxa* eta *etxeta...* jartzen du, baina Markinan honela ahoskatzen dira: *mendixetaa, besuetaa, lurraa, lurretaa, etab.*

W. Rollo-ren ihardespena

2. Azkuek haren erregelari ez dagozkion adibideak jartzen omen ditu. «-lari» atzizkiaz zer dioen bere Morfologian jakin nahi lukela, baina ekinalak egin arren ezin eskuratu izan duela, diotso Rollo jaunak.
3. Hemen —dio— ohar interesgarriak daude, baina nik neure belarriz entzundakoa aldatu erazteko ez dute balio.
5. «-kin» bukaeraz alperrikoa dela Azkuek dioena, berak ere gauza bera esana baitzuen. Ikus «The Basque Dialect». «Las observaciones del Señor Azkue me parecen inútiles y fuera de lugar».
6. Ez dituela gogoratzen «mendixetaa» eta honen gisako laburduririk, beti eta salbuespenik gabe, «The Dialect» liburuan datozen erakoak baizik.

Nire ikuspuntua eta eritzi laburra

- W. Rollo-k uda bi igaro zituen Barinagan, lan hau egiteko materiala biltzen Juan Barkin, Barinagako erretoreak lagundu zion bilketa-lan honetan, baserritarrekin harremanetan jartzen etab. Behin hori lekuan bertan egindakoan, Hollandako bere etxean osatu zuen liburua.
- W. Rollo-ren morfologia zehatz eta kontu handiz egina da. Lan bikaina bere txikian.

- Markinaldeko hizkeraren erregelak herritarren mintzaeratik aterata daude, eta ez inongo gramatika ez idakitik. Euskara mintzatua da ikerketa oinarri, ardatz eta dena.
- W. Rollo-rengan azken erabakia entzumenak du. Zalantzazko kasuetan, berak entzun duenaz fidatzen da. Azkue jaunari egindako ihardespenean garbi ikus daiteke hori: «entzun dudana bezala idatzirik dago» «behin eta berriro entzun dudana, besterik ez dut jarri» etab. Beraz, gramatikarien eta liburu-jakintzaren aurriritzirik gabe, zuzen-zuzenean eta tokian bertan dihardu, hitzetik hortzera jario bizian dagoen hizketa aztertzen. Horregatik Azkue jaunaren eritzi zorrotzei ez die, gehienetan, amor ematen. Azkue, euskararen eta euskalkien morfologiaz oso jantzia dago, inor egotekotan; baina hau euskalkiez dakien teoriak fidatzen den bitartean, hura tokian tokikoen ahotik entzundakoaz fidatzen da.
- Akatsak akats, Markinaldeko hizkeraren lekukotasun zehatza eta egiazkoa ematen duela gaineratu nahi nuke. Orain arte hemengo azpi-euskalkiaz egin den lanik osoena, agian. Bonaparte printzeak ekialdeko bizkaiera dela ta ematen diguna, euskara kulta da; idazle zaharretatik hartua, nik uste.

Zer esan Azkue-ren kritikaz eta Rollo-ren ihardespenez?

I. Markinakoak ez diren hitzak

«Jopu» hitzaz Azkuek dioena egi-egia dela pentsa daiteke. Ni neuk, urte luzeetan, ez dut behin ere entzun, ez Markinan ezta inguruetan ere; irakurri bai, jakina! Hala ere, hemengo euskararen hiztun bikain den eta aholku zuhurrak ematen dakien batek zera esan zidan: «Guk erabili eta entzun ez arren, hor mendiarteko auzoetan holako berba zaharrak eta, gordetan dira eta euren artean erabili be bai»...

Hilabetei eta asteko egunei dagokienez, bertako hitzak ez direla esango nuke. Egutegi edo horrelako idazki-kutsua dute hauek. «Bazkide» hitza ere oraintsu sartutakoa izan daiteke.

«Kirtengeri», «langide» horrelaxe ahoskatzen entzun dut sarri. Atzizki hauek, «-keria» eta «-kide» dira izatez; eta «n» eta «l»ren ondoren ere, erregela gor mantentzearen aldekoa da. Hala ere, Markinaldean, piska bat lasaitu eta bien arteko bat ahoskatzen dela dirudi. Gauza bera esan beharko nuke «estalbe» eta «ibilbide» hitzez ere. Hiztunaren egoerak eta beste zertzeladek badute hor zer-ikusirik, Rollo jaunak dioenez, hiztun berberak ere ez baitu beti berdin-berdin ahoskatzen hitz bera.

II. Fonetika eritziak

«ayenetare» eta «uluetare», «esgare». Adibide hauetako «e» hori, Markinaldean ezezaguntzat joko nuke, W. Rollok berak horrelaxe entzun zuela esan arren.

Jakina denez, W. Rollo oker dago «i» bokaleak ondoko «d» sabaikari bihurtzen duelako ustean. Hori gerta dadin, Azkuek dioenez, bien bitartean «n» edo «l» kontsonanteak behar du egon.

«k», «g»ren aurrean galdu egiten dela etab.

Azkuek erregela zuzena ematen du, baina hizkuntzalari eskoziarra ere hor zuzen dagoela uste dut. 16. orrialdean adibide hau dakar: «lurrek gaitik». Hau, batzutan, «lurrekaitik» ahoskatzen dela dio, eta beste batzutan «lurregaitik». Hemen azentuan dago kakoa. Rollo-ren akatsa azenturik ez jartzea dela esango nuke. Beraz, sarri ahoskatzen da Markinaldean (gehienetan?): «lurrégaitik» (sing.)

«lúrregaitik» (pl.) / «lúrrekaitik».

«Ez» partikula, «bodega» saileko kontsonantez hasten den adizki baten aurretik doanean, txistukari horrek gortu egiten duela kontsonantea eta «petaka» saileko bihurtu. Hau, erregela orokorra da, baina Markinan sandhi horiek indarra galduz doaz, kontsonante batzuei dagozkienak behintzat: «ezgá etorri» ala «ezká etorri»?

Adizkia ez denean, alderantzizko fenomeno ere ematen dela dio Azkue jaunak. Hau da: txistukariak gorra ozen-tzea, eta «t» «d» bihurtzen deneko adibide bat ematen digu: Mus-jokoan handira eta txikira, bietara «hordago» botatzen

denean, besteak handira ez badu nahi, baina bai txikira, honela esango luke Azkueren eritziz: «ez da bai».

Nire ustez, hori ez da txistukariaren eraginez, azentuaren eta geldiunetxoaren eraginez baizik. Adibideko «ez» horrek azentua darama eta geldiune txikitxo bat ere egiten da hor. Bizkaian, esaldi hasieran edo eta geldiunearen ondoren «da» esan ohi dugu ia beti «ta»ren orde. Hau, edozein narrazio-tan nabari izaten da.

III. Atzizkien azalpena

Azkue-ren eritziei egoki-egoki deritzet.

4. puntuan «-zaz», «-taz», «-tzaz» bukaeraz ari denean, argi ematen du noiz eta nola erabiltzen den, baita idazle askorengan errotu den okerra ere: «gizonaren gainean berba egin» ez esatearren, «gizonatzaz» idazten dute askok, ustezko oker bat zuzentzearren, oker handiago bat eginez. Hark, erdel kutsukoa bada ere, badu tradizioa euskara mintzatuan. Beste hau, berrikeria hutsa da.

Adlatibo kasuan (NORA kasuan), ez dut uste «a» biak entzuten direnik. Hor ere azentuan dago kakoa. Azentua bereizgarri ere gertatzen da zenbait kasutan. Ez Azkuek dienez «mendixetaa», «mendixetá» baizik.

Liburuaren azken zatia textoek osotzen dute. Texto polit eta aberatsak hizunktzaren aldetik. Hori irakurriz, euskarak atzeraka egin duela edo eta W. Rollo jaunak hizkun bikain-bikainak aurkitu zituela esan behar. Bijoia orain arteko ihardunaren lasaigarri, neska biren madarikaziozko elkarrizketa edo eta elkar iraintze hau. «Ezton eta baidon» formaz dago:

ATXONDOKO NESKATILLIE

Or beratxuago doien sabin-aldixe obeto aitzeko, esangeutset Atxondoko Mikelak senargei bat eukela Iñazio deritxona eta on (orain) mutil au bestera begire dauela —Mikelak diñonez— auzoko Pantxike txatxalian guzurrek gaittik. Beuken ba arek oni beriek eta bost esateko gogue eraz artzen ban baten. Eldu

zan une au. Pantxike itturritik etorren baten, txarrie besapien artute, urteutsen bidera Mikelak eta ara zelako txipli-txapliek urten ban.

M.—Aitxiñ! Zer esan don nigaittik, gangar zar orrek?

P.—Gangarra nor donan bajakixenau gero. Zer esan bijonat igaittik?

M.—Ik beti miñe luzie, baiña ez egixe esateko; txaplata guzurti bat baiño ez az ta.

P.—Ni guzurtixe? Egin (egiren) batek ez aldeun miñ emon gero?

M.—Iñoz esan aldon ba egik (egirik) txaputzera petral orrek?

P.—Ja, jai! Obeto eingounken olan jardun baiño arpegixe garbittu ta tximok orrastie.

M.—Ire min luzie ta ire begi tximur sorgiñok bardiñek. Eguno gauzaik zuzen etxonek ikusi, bakin?

P.—Jakingo etxonat ba. Aspalditxuen sorgiñen bat aldien donala edonok jakiñ, lorik be ez ei don eitxen da.

M.—Bai oixe, Sorgiñek i ezpaintz eleuken ze ikusik (ikusirik); igandik urtetejonen, neskamutil gangarro.

P.—Ostabe? Topiñek galdariari «ipurdi baltz». Neskamutil ganorabako bat izan ezpaintzonan, gaur be Iñazio euri begire ongo zonan.

M.—Or ba, or ba. Nik esan jonat. Or nun agertu donan eure min luzioi! Uketu nai izen don baiña eziñ. Tire nire aurretik ulerre barritxu ori.

P.—Nai bajonat jungo non, ez ik esatonalako, alper baldras orrek.

M.—Lotsabako iguingarrixoi!

P.—Ia esaiñ ostabe?

M.—Etxaun zegaittik barrero esan, danak jakiñen i nor azan da.

P.—Bai, bai, agaittik abil bakarrik; prenda onen bat azalako edo izangon, ezta? Agur! Agur! Negar malkotxu batzuk botaiñez etxera junde.

M.—Obaik (obarik) boton (bota don) eta bota bikon, txatxala orrek.

P.—Neuk negar? Ja, jai!

M.—Bai, euk negar, jii, jiii!

Esanak esan, alkar atzamartu ez zienien, pozik. (1)

Luis Baraiazarra

(1) Textoa hobeto ulertua izan dadin, idazkeran ikututxo batzu egin dizkiot, baita kako bitartean esanahia adierazi ere zenbait kasutan.